

ZM

ZORROTZ MORROTZ

41. EMA 2015ko IRAILA



SAUL KURTO

EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOKO KIDEA

JAI BATZORDEA

Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

**DIRUA JASO ETA BIDALI,
TXARTEL BIRTUALAREN BIDEZ EROSI,
IUPAYREN BIDEZ ORDAINDU,
KONTUAK ETA KONTRATUAK IKUSI,
KUDEATZAILEAREKIN
HARREMANETAN JARRI...**

**DeN-
DeNa,
MUGIKO-
RRean.**

Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo.
IFK A95653077, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan
inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729;
Folia: 1; Inskripzioa: 1.



**...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?**

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZatik
IRTEN BARIK**



**Berton
kontsumitu**



Kurtso berria gainezka dator... ... Gora Zorrotzako jaiak!

Beno ba, udako oporraldiaren ostean, Auzo Elkartetik gainezka datorren kurtso berri bati hasiera eman diogu.

Alde batetik, udalaren sail ezberdinekin (ingurumena, garraioa herritarren segurtasuna, bizikidetzatza... eta abar) hainbat bilera ditugu begibistan, haien jarduerekin zer ikusia duten arazo ezberdinei irtenbide bat emateko asmoz. Bestalde, Bilboko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrean emandako aurrerapausoak aztertuko ditugu.

Oroigarri moduan, jakin dezazuela astearte guztietan, 19:30etik aurrera, Auzo Etxean gaudela.

Eta nola ez, auzoko jaietan parte harzera gonbidatzen zaituztegu. Hemendik ere, egindako lanagatik Jai Batzordeari gure esker ona agertu nahi diogu. Beraz, gora Zorrotzako jaiak!!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
"harpidetza" jarritz



ZM

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria
41. zenbakia. 2016ko iraila

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Tfnoa: **94 441 49 20**
622 61 90 20

Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

Koordinazioa:
Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Haizea Olleta
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratxe Pérez
Lorna Yáñez

Zuzenketak:
Iñigo

Laguntzaileak:
Karlos Rodríguez
Manu Cobo
Asier Urkiza
Santurtziko Irakurzale Kluba

Inprimaketa:
Arin Graf



zeurea da hitza
euskara
no te lo pierdas

cafe**txinbo**

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estarta, 10
Tel. 94 608 85 74

ibarretaluxury
OPTICA
PROGRESIBOAK
195€
ARMAZOIA DOHAINIK

*Eskaintzak armazoien aukera bati eragiten dio
*Graduazioa +-2 zilindro eta +-4 esfera bitartekoa izan behar da



alBoka
taberna

Soka kalea, 5
Zorrotza
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43

Hemen dira jaiak!

Heldu da urteko unerik kuttunena zorrotzarontzat! Irailaren 23tik urriaren 2ra ospatuko ditugu auzoko jaiak. Urtero legez, barrakak, antzerkiak, tailerrak, kuadrilla lehiaketa, gastronomikoak, herri bazkariak, erakusketak, herri kirolak... eta nola ez, musika, ez dira faltako. Izan ere, zuzeneko musikaren aldeko apustu indartsua egin du aurten Jai Batzordeak. Lehenengo egunean, talde lokal baten ostean, Huts taldea igoko da oholtzara, jarraian Obús Madrileko rockzale zaharrei lekukoa uzteko. Fortu Sánchez abeslari famatuaren taldea gutxi barru kaleratuko duen "Siente el Rock & Roll" diska berria aurkeztera dator. Larunbateko gauean, berriz, Zorrotzan mitikoa bihurtu den Kresala taldea izango da gaua alaitzeko arduraduna. Eta lehenengo asteburua ixteko, Havana 537 talde kubatarrarekin gozatzeko aukera izango dugu igandean.

Bigarren asteburuko eskaintza musikala ere ez da makala izango. Ostiralean, hip hop gauaren barnean, FRC Factory, Koky Mala Fama eta Invert taldeek joko dute. Azken larunbatean berriz, punk soinuak hartuko du auzoa, Los Dementiales Chicos Acelerados eta Hijos de tu Iglesia, Eskorbuto eta La polla taldeei tributoka arituko baitira hurrenez hurren. Ostean, Jose-txu Piperrak taldeak itxiko du gaua. Gutxi balitz, aipatutakoez gain, Sakatu elektrotxaranga, dj Xaibor edota Os do pilón galiziarrek besteak



beste arituko dira gure kale eta tabernetan berderatzi egun hauetan.

Ezin ahaztu hain arrakastatsuak diren lehiaketa gastronomikoak, (putxeren eguna azpimarratu behar da). Eta berritasunen artean, aspaldian egiten ez zen play-back txapelketa berreskuratu da. Laburbilduz, adin guztientzako ekitaldi ugari eta ondo pasatzeko egitarau oparoa zalanztarik gabe. Ezin etxean gelditu, zuen parte hartzea garrantzitsuena baita.

Txinbotarrak konpartsaren sukaldea kudeatu du Aste Nagusian Jai Batzordeak, jaietarako dirua lortzeko

Igor

Aurten, urtero legez, Jai Batzordeak Txinbotarrak auzoko konpartsaren txosnako sukaldea kudeatu du Aste Nagusian, jaietarako dirua lortzeko asmoz. Bederatzi egunez, bokatak prestatu eta saltzen ibili dira hainbat bolondres, arratsaldetik gaueko ordu txikietara.

Aski ezaguna da auzoko saltokiak eta feriantek Jai Batzordearen diru-iturri nagusiak

direla. Bada, ordea, datu esanguratsuago bat: ingresuen %40 ekimen desberdinen birtatez lortzen dituzte eta, horien artean, Aste Nagusian saldutako otartekoek kopururik handiena ematen dute. Jaiak hogeita hamar mila euro inguruko aurrekontua duten bitartean, udalak emandako dirulaguntza mila euro eskasean geratzen da. Horregatik berebezikoa izaten dute horrelako ekimenak baliatzea.

Jaietako hainbat ekintza babestuko ditu Euskal Txokoak euskara sustatzeko asmoz

Zorrotz Morrotz

Jaietan ere euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, jaietako egitarauko hainbat ekintza babestuko ditu Zorrotzako Euskal Txokoak.

Lau dira guztira babestutako ekitaldiak, horien erdia umei zuzenduak. Hasteko, asteartean Goloka Taldearen "Wolingen Gara-txoa" txotxongilo ikuskizunarekin goatzeko aukera izango dute txikienek Azoka plazan, arratsaldeko 18:00etan hasita. Horren ostean, 19:30ean, "Berbodromoa" izango da Azoka plazan bertan: talde txikitari auzoko kontuez euskaraz solasean aritzeko parada.

Azkenengo larunbatean, urriaren lehenengo goizean hain zuzen ere, Imanol Ituño magoaren txanda izango da. "Salam" kale antzerki ikuskizuna eskainiko digu Ituñok 12:30etik aurrera Azoka plazan.

Bukatzeko, Jai Batzordearen txosnatik abiatuko da "Berbapoteoa" ordu erdi berandua-go, eguerdiko ordu batean, bertsolariek eta trikitilariak lagunduta.

Beraz, jaietan ere, aukera ezinhobeak ume zein nagusientzat, Euskal Txokoak babestutako ekintzetan ondo pasatzeko.

Euskaraz egitera animatzen duten pegatinak banatuko dira txosnarientzat

Zorrotz Morrotz

Zorrotzako Euskal Txokoa eta Jai Batzordearen ekimenari esker, "Nirekin euskaraz" alboko argazkian ikus ditzakezun pegatinak banatuko dira txosna guztietan aurrean ere.

Jaietan ariko diren txosnari euskaldun guztiek, pegatina hau ikusgai jarrita, txosnetara hurbilduko den lagun oro euskaraz egiten animatuko dute. Beraz, zure edaria edo ogi-tartekoa eskatzerakoan, txosnaria pegatina hau jarrita duela ikusten baduzu, euskaraz egiten lasai zure eskaria.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Estibaliz Ibañez Canal
Delegatua

Astillero, 8
48013 Bilbo

Tel. 94 441 91 87
iestiva@mapfre.com
ampascu@mapfre.com





Zorrotzako Lorategia eta Zazpi Landa arteko parkeko apurtutako farolak konpondu dituzte

Zorrotz Morrotz

Ezezagunek abuztuan apurtutako farolak konpondu dituzte udal zerbitzuek. Auzokideon kexa jasota, hondatutako materialaren konponketa eskatu zion udalari eta hala bete dela azaldu du Auzo Elkarteak. Era berean, zonaldean garbiketa lanak maiztasun handiagoarekin egin daitezela eskatzen ere jarraituko dutela adierazi dute Auzo Elkartetik.

Iker Blanco, Sanfilippo gaixotasuna zuen umea, zendu da, 11 urte zituela

Zorrotz Morrotz

Iker Blanco, Sanfilippo gaixotasuna zuen Zorrotzako umea, 11 urte zituela irailaren 2an zendu zela jakin dugu bere aitak Facebook bidez zabaltutako mezu hunkigarri bat dela medio.

«Duela hamaika urte eta erdi, goizaldean, nire aingerua jaio zen eta egun hura nire bizitzako egun zoragarri eta alaiena bihurtu zuen. Gaur izarretarantz joan da hegaz bere burbuila gainean». Horrela hasten da Ikerren aitak sare

sozialean zabalduko mezua. Ikerren familia ezaguna zen gaixotasun honi sendabideak lortzeko lan egiten duen "Stop Sanfilippo" mugimenduan egindako lanagatik. Egindako ahaleginei esker, Gurutzetako ospitalean gen terapia entsegu bat garatuko da etorkizunean. Zorritarrez, entsegu eta saio horiek berandu helduko dira Ikerrentzat. Zorrotz Morrotz al-dizkariaren taldearen izenean gure doluminak helarazi nahi dizkiogu bere familia eta lagunei une gogor hauetan eta gure gertutasuna adierazi. Bihotz izan.



aek euskara praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena Matriculate

- **Euskara maila hobetu!** Mejora tu nivel de euskara!
- **HABE titulazio ofizialak; EGA**
- **IKASGEL@ (autoikaskuntza) / BOGA** Autoaprendizaje
- **ON LINE**
- **BERBALAGUNA**

Gurasoentzako eta titulazioengatikoa DIRULAGUNTZA BEREZIAK

SUBVENCIONES ESPECIALES para madres y padres o por titulación

aek

ZORROTZA AEK
Zalbidea 7 • 944 414 920 • zorrotza@aek.eus
www.aek.eus/blogak/bilbo



Callejón del Tránsito



LEHEN

Kale hau alde Arsenal bidean hasten da eta Hermogenes Rojon amaitu eskailera baten bidez. Eta bere kalekka alde zaharreko plazuelatik landara. Naz eta gaur egun jada ikusten ez dan kalea izan bere garaian jende asko bizi eta erabiltzen eban kale hauek (erderaz "los callejones" famatua). Bere garaian hango atari batean, goiko solairutik Zaldiko maldiko irrtati libreak emititzen zeban.



ORAIN



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**


Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlño. 94 441 61 46

*Regalos
Omega
oparidenda*

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

**Pizzeria
Jatetxea**



La Viña de Oro
Zorrozgoiti 1 · 944 994 227

“Seme-alabak, senarra, lana... Nire bizitza hemen dago orain”



LEILA LANGER

Jatorria: Brasil

Noiztik: 2001etik

Adina: 38 urte

Lanbidea: Ostalaria

Leila Brasiletik etorri zen orain dela 16 urte lagun batekin ezkontza batera. Ezkontza horretan maitemindu zen eta urtebete geroago, bera ere ezkondu eta Zorrotzan geratu zen. Oso gustura dago gurean, eta Brasilgo familia eta janariaren falta duela aitortu arren, Leilak ez du bueltatzeko inolako asmorik agertzen.

Naroa Peña

Noiz eta zergatik etorri zinen Brasildik Zorrotzara?

Lagun batekin etorri nintzen orain dela 16 urte. Berak ez zuen ezkontzara bakarrik etorri nahi eta laguntzera etorri nintzen. Bertan nire senarra ezagutu nuen. Bueltatzeko hegazkin-txartela eta guzti erosita neukan, baina maitemindu nintzen, eta geratzea erabaki nuen. Urtebete pasa ondoren, ezkondu ginen eta Zorrotzara bizitzera etorri nintzen.

Gure ohituretara moldatzea kostatu zitzaizun?

Moldatzea ez zitzaidan batere zaila egin. Jendearen ahots gogorra izan zen gehien harritu ninduen, nire herrian oso gozo hitz egiten baitugu.

Hizkuntzarekin nola moldatu zinen? Euskara ikastera animatu zara?

Heltzerakoan ez nekien gaztelaniaz hitz egiten, baina ikastea erreza egin zitzaidan. Euskararekin guztiz ezberdina da. 16 urte eman ditut jada hemen eta ezinezkoa egiten zait. Bizpahiru hitz dakizkit. Ulertzea gustatuko litzaidake, nire umeei etxerako lanekin laguntzeko.

Zer duzu faltan zure herritik? Askotan bueltatzen zara?

Familia, noski, baina baita janaria ere. Ama-aitaginarrebak erretiratu zirenetik, guk hartu dugu Jai Alai tabernaren ardura, eta harrezkero ez naiz nire herrira bueltatu. Hamar urte pasa dira joan nintzen azken alditik, baina whatsapp eta skype-ri esker, beraiekin askotan komunikatzen naiz eta ez zait hain gogorra egiten.

Hemen ostalaria zara. Han lan berdina zenuen?

Zorrotzara heltzerakoan ostalari lanbidea ikasi nuen. Nire herrian oraindik ikasten nengibilen.

Tabernan pintxoak, txibierroak, etab... egiten dituzue. Euskal gastronomiak Brasileko gastronomiarekin antzekotasunik al du?

Zer ikusirik ez. Han egunero janari plater bakarra jaten dugu, arroza eta babarrun osagarriekin beti. Hemen lehenengo, bigarren eta postrea jaten da, hainbeste jatera oraindik ez naiz ohitu. Gainera, Brasilen espezia asko erabiltzen ditugu. Etxean ongailu asko botatzen dizkiot janariari.

Zure herrialdearekin alderatuz, hemengo bizitza eta jendea oso ezberdina da?

Zorrotzara bizitzera etorri nintzenean, harrituta geratu nintzen jendeak esaten zituen biraoekin. Guztiek esaten zituzten, baita emakume zaharrek ere! Orain urte asko emanda, hemengo bizimodura moldatu naiz. Dagoeneko, nik ere biraoak esaten ditut! kar kar!

Zer da auzoko gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Auzoko jendea da gehien gustatzen zaidana, oso atseginak dira. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, aparkatzea ezinezkoa dela.

Parte hartzen duzu auzoan egiten diren ekintza ezberdinetan?

Bai, inauterietan parte hartzen dut. Gainera, tabernan jaietarako laguntza ematen dugu eta futbol taldeei baloia ematen diet. Ahal dudan guztietan laguntza eskaintzen dut.



Eta bukatzeko. Zure herrian berriro bizitzea gustatuko litzazuke edo hemen geratuko zara betiko?

Momentuz ez, nire bizitza hemen dago: lana, semealabak, senarra... eta gainera, neba ekartzea lortu nuen. Bera hemen bizitza berregiten ari da, ni bezala. Geratuko garela uste dut, baina gertatuko dena jakitea ezinezkoa da. Nire familiagatik soilik bueltatuko nintzateke.





Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estaria, 12
94 490 12 59

ZORROTZAKO JAI BATZORDEA

Jai herrikoi eta pluralen aldeko apustua



Zorrotzako jaiak posible izateko Jai Batzordeak urte osoan zehar lanean jarduten du.



Testua: Haizea Olleta
Argazkiak: Zorrotzako Jai Batzordea

Algara eta turutak entzuten dira kalean. Leihotik begiratu eta jendea aldapan gora doa, alai eta irribarretsu. Arrantzale gona, kuadrillako kamiseta eta edalontzi berriztargaria hartzeko unea heldu da. Barruan irrika sentitzen dut auzo guztia bere kuadrilletan ikustean. Bakoitza prest dago bere traman-kuluekin, lan handia egin duten seinale direnak. Bat-batean tronpeta soinu bat entzuten da, fanfarreak jotzen hasi dira eta ibiltzen hasten gara. Azkenean heldu da eguna!

Kuadrillen lehiaketa, umeentzako jolasak, putxera txapelketak, musika kontzertuak... hau guztia eta are gehiago dugu urtero Zorrotzako Jaietan; hamar gau eta egunez gozatze-ko aukera paregabea. Askok ez dakitena da, ahalik eta jai herrikoi onenak lortzeko Zorro-

tzako Jai Batzordeak urte osoan lanean jarduten duela.

Pluraltasunaren bidean, funtzionamendu asanblearioa

“Zorrotzako Jai Batzordea batik bat auzo mugimenduan murgilduta dauden gazteek osatzen dute”, azaltzen du Naiara Pollo Jai Batzordeko kideak. Zorrotzan txosnak jartzen dituzten elkarteek ordezkariek; batik bat, Gure Lurra, Txinbotarrak, Askabide eta Harrapari derrigorrean parte hartu behar dute bertan. Hauekin eta auzoko beste hainbat elkartetako ordezkariekin eta norbanako gazteekin batera Zorrotzako Jai Batzordea osatzen da.

Jai Batzordea modu asanblearioan antolatzen da eta haien helburu bat ahalik eta jai

parte-hartzaile eta pluralenak lortzea da. Horretarako uztailan jaiak hobetzeko deialdi ireki bat egin zioten auzokideei. Horretaz gain, auzoko taberna ezberdinetan ere irailaren hasiera arte kutxa batzuk zehaztu zituzten non herritarrek haien proposamenak egiteko aukera zuten.

Erronka nagusia, finantzaketa

Dudarik gabe Jai Batzordeak festak aurrera ateratzeko duen erronka nagusia finantzaketa da. "Udalak jaiak antolatzeke ematen duen dirua oso gutxi da, ez da mila eurora iristen", dio Naiarak. Hori dela eta, Jai Batzordeak beste finantzaketa bideak bilatzen ditu, oro har auzoko elkarteak, saltokiak eta tabernak. Gainera, urtero, Bilboko Aste Nagusian Txinbotarrak konpartsak "Zorrotzako jaiengatik sukalderaino sartzen naiz" bokatak saltzeko kanpaina martxan jartzen du, non jaietarako finantzaketa lortzeko helburuarekin, Jai Batzordeak txosnaren sukaldea kudeatzen du, eta auzokideak txosnan txandak egitera animatzen dituzte.

Azken trakaren danbadak plazan gauden guztion bihozmina eragiten du, mezua ulertu dugu: jaiak beste urte batez bukatu dira. Baina Jai Batzordeak oraindik lan luzea du abian, txosnak batu, kontuak atera... eta noski hurrengo jaietan pentsatzen hasi jai plural eta herrikoien onenak lortzeko. Hori dela eta, Jai Batzordeak jende berria bertaratzeke deialdia egiten du, jaiak hobetzeko ideia berriak dituzten gizon-emakumeak. Zenbat eta jende gehiago bildu hobeto!



Jai Batzordea modu asanblearioan antolatzen da eta haien helburu bat ahalik eta jai parte-hartzaile eta pluralenak lortzea da.

Udalak jaiak antolatzeke ematen duen dirua oso gutxi da, ez da mila eurora iristen. Hori dela eta, Jai Batzordeak beste finantzaketa bideak bilatzen ditu.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

SAUL KURTO

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko Kidea.
Pariseko Fresnes espetxean preso

“Oraina bizitzearen ikuspegiari esker, lau urte hauek oso azkar pasatu zaizkit eta gauza asko ikasi ditut”



Txinbotarrak Konpartsako kidea, Jai Batzordeko kidea, Zorrotza Bizirik plataformaren bultzatzailea, Zorrotzako Kloratita musika taldeko baterajolea... Auzoko zenbait plataforma eta taldeko kide oso aktiboa da Saul. Frantzian atxilotua izan zenetik, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kidea ere bada. Hurrengo hilabeteen 4 urte beteko ditu Pariseko Fresnes espetxean. Handik, eskutitz baten bitartez ZMek bidalitako elkarrizketaren galderak erantzun ditu.

Testua: Aitor Marín / **Argazkiak:** Saul Kurto eta bere familia

Noiztik zaude preso?

2012ko urriaren 22tik, laster lau urte beteko dira (Frantziako Fresnes espetxean).

Nolakoa da gaur egungo zure egoera juridikoa?

Epaitu gabe nago. Azaroaren 9an epaiketa izango da eta irtetze data jakin ahal izango dugu.

Eta egoera pertsonala?

Indartsu sentitzen naiz. Alai, umoretsu eta go-
goekin egunerokoari aurre egiteko. Gureztat
espetxea borrokan jarraitzeko beste fase bat
da eta ikuspegi kolektibotik aurre egiten diogu.

Zelan betetzen duzu ziega barruko denbora?

20 ordu ematen ditugu ziegan. 8 ordu lo egi-
teko eta 3 ordu +/- egiten ditudan bost otor-
duetarako eta prentsa irakurtzeko. Beste ordu
bat ziega txukundu, estiraketak eta dutxarako.
Beste 8 ordu normalean irakurtzen eta gehien
bat ikasketekin ematen ditut. Sartzean EGA
atera eta segidan Unibertsitatean hasi nintzen.
Irailean EHUn filosofia ikasketen laugarren
eta azken urtea hasiko dut.

Zein da egoerarik zailena espetxean?

Espetxearen arabera, pertsona eta bizitzaren
momentua. Horretarako ez dago egoera zail
jakin bat guztiontzat. Nik espetxean egotea
nahiko lasai eta erraz bizi izan dut. Azentoa
beti gauza positiboetan jartzen dut. Lagunek
esan didate nik dudan izaeragatik delako.

Kartzelaratua egon zaren bitartean seme bat izan duzula jakin dugu... Horrelako bizi- penak kartzelan, eta etxetik ia 1000 kilome- trora bizitzeak zaila izan behar du, ezta?

Barruko kideen maitasunarekin batera, Aroa
eta Sua hemengo egonaldiazen gauza han-
dienak izan dira, zalantzarik gabe. Bai, ume-
txo jatorra eduki dugu, Sua du izena. (zakil-
txoa du, baina semea edo alaba den berak
erabakiko du!). Egoera oso gogorra da es-
petxetik umearen egunerokotasunaz ezin go-
zatzea. Lehen esan bezala, egoerari buelta
eman behar zaio eta gabeziak ikusi baino,
azentua gauza positiboetan jarri behar da.
Txikitxoak ematen digun zoriontasunarekin
gelditzen naiz.



**“Ez dut asko pentsatzen egun
horretan, baina poztasun
eta sentimenduz beterikoa
irudikatzen dut kalera irteteko
eguna. Lehenengo gauza
Zorrotzara joatea izango da.
Auzokide, lagun eta familiarekin
egoteko gogo handia dut ”**

Dispersioa gainditzea eta herria eta auzoa- rekiko loturari eustea posiblea da presoar- entzat?

Jakina posiblea dela. Birgizarteratzeaz hitz
egiten digute, baina euskal presook ez dugu
inolako arazorik gure inguru sozialetan berriz
integratzeko. Sustrai sozial sendoak ditugun
herrikideak gara, gure herrietan oso aktiboak
izan garelako. Adibide gisa: hemen Paris in-
guruko jende askok bisitarik ez dauka eta guk
ia 1000 kilometrotara eta astero senide eta
lagunen bisitak ditugu (espetxean horrekin fli-
patzen dute!).



“ Militantzia soziala bizimodua da niretzat, herriarekiko konpromisoa odolean daramagu... Ateratzean, auzoan eta Euskal Herriko hamaika saltsatan aktiboa izaten jarritu nahi dut, lehen bezala ”

Nola irudikatzen duzu kalera ateratzeko momentua? Zeintzuk dira egingo dituzun lehenengo gauzak?

Poztasun eta sentimenduz beterikoa. Lehenengo gauza Zorrotzara joatea izango da. Auzokide, lagun eta familiarekin goxo-goxo egoteko gogoia dut. Mendia zapaltzea ere gustatuko litzaidake. Hasierako asteetan jende askorekin hitz egiteko denbora hartuko dut eguneratze politiko eta soziala egiteko. Herriaren taupada entzuteko gogoia dut.

Urrun sumatzen duzu egun hori?

Egia esaten badizut, ez dut asko pentsatzen egun horretan. Bizitzan “egunerokoa” bizi behar da, kalean edo barruan egonda. Egunerokoa energia eta indarra jartzeak bizitza bera intentsitatearekin dastatzeko balio du. Oraina bizitzen ikasi behar da eta ikuspegi horri esker lau urte hauek oso azkar pasatu

zaizkit eta gauza asko ikasi ditut.

Oso harreman estua zenuen Zorrotzako Herri Mugimenduarekin. Haren egoeraren berri duzu? Nola ikusten duzu?

Zorrotzatik berriak izan ditut, bai. Nahiko nuen baina gutxiago izan da. Dena den, auzoko egoeraz ondo informatzea lortu dut (Zorrotz Morrotz ere lagungarria izan da horretarako!). Auzoko Herri Mugimendua ondo ikusten dut: belaunaldien erreleboa bermatu da eta belaunaldi berriak auzoko proiektuak sostengatzen ari dira. Auzoko herri eragileak indartsu ikustea oso pozgarria da. Auzoarentzat frontoia estaltzea eta lokalak lortu izana oso albiste ona da.

Hainbat ekimenetan parte hartzen zenuen? Kalera atera ondoren, horretan jarraitzeko asmoa eta gogoia duzu?

Noski. Militante politikoak gara. Espetxera ekarri gaituzten arrazoiak arrazoi politikoak dira. Gu ez gaude politikan dirua ateratzeko, Herriarekin jendarte hobea eraikitzeke baizik. Guretzat militantzia soziala bizimodua da, Herriarekiko konpromisoa odolean daramagu. Ateratzean aktiboa izaten jarraituko dut, auzoan eta Euskal Herriko hamaika saltsatan, lehen bezala. Ahaztu gabe, bikotekide eta aitabito papera lehentasun bat ere izango direla. Noski.

Zerbait pentsatzen edo aurreikusten duzu? Zertarako duzu gogoia?

Ateratzean Lasartera bizitzera joango naiz (hau berria izango da askorentzat) Aroak eta Suak bertan bizitokia dutelako. Baina horrek ez dit kenduko auzoarekiko lotura. Lasartetik bada ere, Txinbotarrak eta Auzo Elkarteko kidea izaten jarraitzea gustatuko litzaidake (ahal dudan heinean). Gaurko teknologiek errazago litzateke gainera, eta beno, askotan auzora itzultzea ere espero dut baita ere. “Primizia gisa” (kar kar) nire hasierako asmo bat kontatuko dizuet: ateratzean Auzoko Liburua-ren proiektua bukatzea gustatuko litzaidake. 2007an hasi nuen proiektua eta oraindik bukatu gabe dago. Urte hauetan guztietan nire barruan eduki dudana arantza moduko bat izan da. Pena handia eman zidan 2007an ezin bukatu izanak eta gerora bukatzen ez zela ikusitak. Niretzat ariketa polita izango da auzoarekin berriz lotzeko. Azkar ateratzen banaiz,

badut jada idatzita Auzo Elkartean egingo dudan proposamena: 2018-2019 biurtekoan Taldeen Koordinadorak 30 urte eta Auzo Elkarkeak 50 urte beteko dituzte, ondo egongo litzateke biurteko horretan Zorrotzan zenbait ospakizun antolatzea eta testuinguru horretan Auzoko Liburua publikatzea plan horren oinarrizko ideia bat litzateke. Gehiago dago, baina ez naiz orain luzatuko.

Eta musika munduan? Hainbat taldetan ere ibilia zara...

Bai, baina ez da izango lehentasuna. Agian, asko jota, kontzertu bira bat egongo da. Iku-siko...

Zer nolako Euskal Herria espero duzu egun horretarako? Eta zer nolako Zorrotza?

Jendarte justuagoa eta hobe eraikitzen jarraitzeko eraldatzen jarraitu behar den errealitatea. Eta lan horietan aritzeko, Euskal Herrian eta auzoan, irrikitan nago.

Maiatzean gose greban egon zinen zure kide baten egoera salatzeke...

Bai. 19 eguneko gose greba izan zen. Gogorra, baina gure helburuak lortu genituen. Itziar Moreno bilbotarra isolamendutik atera genuen. Ez dugu isolamendua onartzen, Estanbuleko Torturaren Aurkako Nazioarteko Protokoloan isolamendua "tortura zuriaren praktika" gisa hartzen baita.

Bestelako zer aukerak dituzu jasan ditzakezun bidegabekeriak salatzeke?

Blokeoak, kartelak, kontzentrazioak, zigor ziegara joatea, propaganda, akzioak, eta abar.

LABURREAN

"Ezin dut laburrean amestu, ameslari "luzea" naiz"

Zaletasun bat?

Soilik bat? Irakurtzea, mendia, lagunekin solasaldi luzeak, musika entzutea, sexua, eztabaidatzea,...

Munduko pertsonaia politiko edo historikori miresgarria? Euskal Herri mailan?

Edozein emakume borrokalaria. Asko egon dira eta historiari ahaztu ditu.

Gomendatuko zenukeen liburua?

"Aun en las tinieblas le sonrió a la vida", Nekane Jurado.

Egunkarian irakurtzea gustatuko litzazukeen albistea?

Sentitzen dut, ezin dut laburrean amestu, ameslari "luzea" naiz. Bi emango dizkizut: bat, "Munduko aurrekontu militar guztiak giza eta natur garapenerako bideratuko dira. Ondorioz, sei hilabeteetan munduko gosea eta kutsadura desagertuko dira"; eta bi, "Euskal Herriko zazpi herrialdeetan independentziaren hautuak irabazi du. Gaur ospakizuna. Bihar Euskal Estatu berriaren eratze lanak hasiko dira".



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarguz)
Eguneko menua

Txipiroi-ogia kipula, perretxiko eta ali-oli saltsarekin



Osagaiak: Txipiroi-ogia, perretxikoak, kipula, ali-oli saltsa eta olio.

Hasteko, zartagin batean olio bota behar da. Kipula zatituta botako dugu geroago, eta mugitu behar da. Behin kipula frijituta, perretxikoak gehituko ditugu.

Kaiku batean botako dugu eta ali-oli saltsarekin nahastu behar da.

Azkenik, ogi-txipiroia zabaltzen da eta gure nahasketarekin bete behar da.

Zailtasun maila Erraza

Prezioa: 1,50 €

MADNESS KAFETEGIA



2001. urtetik irekita.

Astelehenetik - ostiralera, 7:30etik aurrera zabalik. Larunbat, igande eta jai-egunetan 11etatik aurrera.

Ostegunero pintxopote.

Gure espezialitateak irabiaki naturala eta limoizko sorbetea dira.

Patata tortilla arrunt zein beteak.

Umeentzako urtebeteak antolatzen ditugu. Plaza handia daukagu taberna aurrean umeek jolas daitezen arrisku barik.

Euria bada, gazte txeko plaza ere alboan dugu.

Ogitartekoak, hanburgesak, plater konbinatuak, entsaladak eta menu bereziak.

Erreserbatu egiten da.

Zalbidea estarta, 5 (atzea)

Telefona: 94 441 62 75

637 757 926 (whatsapp)

CAFÉ LAS NAVAS

Pintxo goxoak eguner

Zorrotza Kastrexana errepidea 4

Bar **La BOMBA**

Zorrotza Kastrexana errepidea 33



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estarta IO

AUPA ATHLETIC



Tel. 94 441 62 75

Doinua: Habanera.

Uda amaitzeaz batera
hemen daude ohi bezala
Zorrotzako jaia ez al da
benetan unibertsala
bi aste ikargarri
juerga klase magistrala
kuadrilla arteko giroa
ibai ertzeko kresala
eraso sexistatik ez
gure aldarri zabala
errespetua oinarri
gozatzen dugun ahala
jai euskaldun ta herrikoien
nahiak harrapa gaitzala
bihur dezagun Zorrotza
parrandaren kapitala

Doinua: Gure aurreko
guraso zaharrak

Abots kordetatik igarota
abotsaz haizea jantzi
hitzei forma emanez sari
ta balioa erantsi
gozoa dirudien hitzari
gozotasuna erantzi
hitz bati darion indar hori
idatzia ahal du ebatsi
paperak bere mugak dauzkala
ezin da inoiz ahantzi

Asier Urkiza



Mussche. Kirmen Uribe. Susa. 2012



Santurtziko Irakurzale Klubean "Mussche" liburua irakurtzeko eta aztertzeko aukeratu genuenean, neurri handi batean, hurbiltasunagatik aukeratu genuen, hots, istorioa Santurtziko portuan hasten baita, gerrako umeak "Habana" itsasontzira enbarkatzen direnean erbestera ihes egingeko. Aitzakia horretatik abiatuta, Robert Mussche idazle gaztea ezagutzen dugu, eta ia modu dokumentalean kontatzen digu Uribek zein ingurutan hazten den idazlea. Nobelan pertsonai askoren bideak nahasten dira, maisuki protagonistaren orbitatik urrundu gabe eta, bide batez, protagonistaren figura borobilduz,

baina halaber, irakurleak kasik konturatu gabe, uztartzen dira aipatutako dokumental ukituak eleberri historikoaren ezaugarriekin eta Kirmen Uribek bere lehen nobelan "Bilbao New York Bilbao" erabili zuen auto-fikzioaren estilo eta liburua bera idazteko prozesuarekin. Paralelismo asko aurki edo bila daitezke geure lurralde eta garaiekin (hizkuntzaren kasuan, gatazka eta elkarbizitzarekin zerikusian), zehatz-mehatz aipatu gabe, baina Uribek gaitasun handia dauka epai propiorik ez botatzean, soilik fokua inon jartzearekin nahikoa du idazleak, irakurleari pentsaraziz.



Sustrairik dagoen bitartean.


Herri Oihua. Gaua. 2016



Aurreko alean Revolta Permanent laukotearen bigarren diska aztertu genuen. Bada, talde horretako hiru musikari Herri Oihua izeneko proiektuan ere aritzen dira. Irailaren 2an aukeztu zuten lan hau, taldearen hirugarrena hain zuzen ere. Bost abesti ditu eta 2017an aterako den lan berriaren aurrerapena da. Proiektuaren sorreratik Iker Aginaga (ahotsa), Iker Villa (ahotsa) eta Mikel Becerra (kitarra) geratzen dira. Duela bi urte

inguru Alex Rementeria (baxua) eta Lander Campos (bateria) batu zitzaizkien eta soinuaren aldetik indar eta potentzia gehiago suma daiteke. Iraupen laburreko hau Mungiako Gaua estudioetan grabatu dute Jon Asier Zubelzuren gidaritzapean. Estilo aldetik rocka eta rap-metalala nagusi diren arren, "Letaginak" eta "Hiltzen naizen bakoitzean" abestietan buroa astintzeko hardcore eta metal pisutsua nahastu dituzte.

Entzuteko: <https://herrioihua.bandcamp.com>



"la Caixa"

**Zeu zara
izarra**

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!



EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Generorik gabeko izenak

Euskaraz, sustantibo gehienek ez dute generorik. Hala ere, geure buruari hau-xe galdetu ahal diogu: generorik gabeko sustantiboak entzutean, emakume edo gizonetaz hitz egiten ari dela jakin gabe, zer irudi etortzen zaigu gogora? Ikus dezagun; poliki irakurri eta mentalki irudikatu hurrengo hitzak:

Erizaina, idazkaria, suhiltzailea, haultzai-

na, igeltseroa, zurgina, garbitzailea, uga-zaba, emagina...

Nor irudikatu dugu hitz hauek irakurtzean? Hitzek, noski, ez dute irudikatzen zein den hitz egiten ari garen pertsonaren generoa, baina gerta daiteke, guk mentalki generoa ipintzea, gizartean emakumezkoentzako edo gionezkoentzako lanbideak kontsideratzen direnekin bat etorrita.

Iturria: Emakunde-ren "Euskararen erabilera ez sexista" gida

SALAKETA ARGAZKIAK



Azken bolada honetan airea zakarturik dabil Zorrotzan. Berriz ere. Agian, SADER udako oporraldia aprobetxatzen ari da, auzoan jende gutxiago dagoelakoan, bere kiratsa hedatzeko. Bitartean, ezinegona handituz doa auzotarron artean eta sare sozialak aztoratu egin dira. Aire arnagarria agortuko al zaigu pazientzia baino lehen?.

Argazkia: Alberto Carvajal



Gutxi barru zabalduko den nagusientzako egoitzan ia dena dute prest. Eta arreta jarri dugu ateetako plaketan. Egia da Anton eta Gilen portuko auzoaren izen ofiziala (momentuz behintzat) elebiduna dela, baina euskararen egoera zein den jakinda, Aldundiak erdararen aldeko hautua egitea ulergaitza iruditzen zaigu.

Lokatzaren beharra

Azkenaldian euskalgintzan oso ohikoa bihurtu den kontzeptua dugu arnaguneena. Kontzeptua argitze aldera, arnas-guneak hizkuntza minorizatuei arnasa (hiztunak) ematen dieten guneak direla esan genezake.

Euskal Herrian baditugu halakoak, baditugu euskararen gotorleku diren tokiak. Bertan euskara da nagusi, biztanle gehienek lehenengo hizkuntzatzat daukate, eta erabilera-aren ehunekoa oso handia da. Arnasguneak beharrezkoak dira hizkuntzaren biziraupenerako, lehen esan bezala, arnasa ematen diotelako itolarrian dagoen gure hizkuntzari. Trinkotasuna eskaintzen diote, toki fisiko bat, errealitate bat, hizkuntza normalizatzen laguntzen dute, alegia. UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) barruan dauden herriak, adibidez, euskararen arnasguneak lirateke.

Normalizazioaren bidean, arnasguneen garrantzia handia bada ere, ez zait erabatekoa iruditzen; esan nahi baita, ez direla aski, horien presentzia soilak ez duelako Euskal Herri osoa euskaldunduko. Horiek ez badira aski, orduan zer? Horra galdera potoloa, askotan euskararen gotorlekuek ematen duten

erosotasunari helduta saihesten saiatzen garena. Bada galdera horri erantzun bat eman nahian edo, nik sorkuntza aldarrikatuko nuke. Sorkuntza zarena? Galdetuko duzue irakurle harrituok: arnas-gune berrien sorkuntza, nik erantzun. Agian euskara nagusi ez den toki horietan sortu beharko genituzke arnasguneak, erdarazko mintzoa soilik entzuten den lekuetan euskarari arnasa emateko, itoalditik atera eta birrikak betetzeraino hartu dezan arnasa. Hori da normalizaziorako biderik eraginkorrena. Hiritan, auzoetan, euskara gutxiengo den herrietan arnasguneak sortzea. Ez da bide erraza izango, herri euskaldunenetan euskaraz bizitzea baino askoz zailagoa izango da, bai. Erraza ez, onuragarria bai. Erdal lurraldeetan gatazka linguistikoa sortu beharko genukeela iruditzen zait, Lorea Agirrek dioen bezala euskara problematizatu eta lokatzetara ekarri.

Bizitzeko lokatzaren beharra baitugu euskaldunok, euskara toki deserosoetara eramateko beharra, bizirik iraungo badu. Horrela besterik ez dugulako gatazka ikusaraziko, eta gatazkak emango dio hizkuntzari arnasa, aintzat hartu dezaten borrokatzeko grina. Eraman ditzagun gatazkak hiri erdigunetaraino, euskaraz zikintzeraino Bilboko Gran Vía-ko itxura liraina, Donostiako palazio kaskariak, Baionako eraikin ilustratu frantsestuak. Soilik normalizazio faltsua desnormalizatean lortuko delako egiazko normalizazioa, Koldo Izagirrerri hitz batzuk lapurtuz, euskaraz egitea normaltasunean tu egitea baita.

Asier Urkiza

ASKA BIDE
kultur elkarte
ZORROTZA

ITZULERA GOGOAN,
TAUPADEN ARRAZOIA

Fraí Juan 20 • Tel: 688 855 648
askabidezorrotza@gmail.com

Taberna
AITOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Jaiak gureak eta guztionak!

Badatoz auzoko jaiak, ondo pasatzeko eta kaleak girotzeko momentua. Urtean zehar egiten dugun lan guztia borobiltzeko unea, giro jaitsuan lan egiten jarraitzeko. Auzoak merezi dituen jarduera guztiak prest daude. Gure esku dauden baliabide guztiak agerraraziz haur eta gazteentzako ekin-tza bereziak prestatu ditugu.

Parte hartzeko aukera inklusiboak bultzatuz, auzoko haur, nerabe eta gazte guztiak etxean ez geratzeko deialdia nahi dugu egin. Jaietan ere, beste motatako aisialdia posiblea dela aldarrikatuz.

Kirol ekintzak itsasadarrean, txikientzako bit-sa festak, "Mugikortasunaren artea" izen-datutako parkour mugimenduaren tailerra eta urriaren 1ean egingo den herri bazka-ria izango da jai egun hauetan guztion par-te hartzea sustatzeko Gure Lurra antolatatu duen egitaraua.

Gure Lurra osatzen dugun familia guztiaren izenean, parte hartzera gonbidatu nahi zai-tuztegu. Bizi, Gozatu eta Mugi zaitetz Auzo-ko jaien alde!



GURELURRA

URTE *Haziz hazi*
Zorrotzako jaiak **ERAIKITZEN**

IRAILAK	24	11.00 KAYAK ITSASADARREAN
		11.00 PADDLE SURF ITSASADARREAN
		13.30 BITSA FESTA
IRAILAK	28	17.30 BITSA FESTA
IRAILAK	30	18.00 PARKOUR TAILERRA
URRIAK	01	15.00 HERRI BAZKARIA

Info+ eta izen-ematea: GURELURRA.ORG

Zorrotzako Jaiak 2016

IRAILAK 27 ASTEARTEA

18:00etan **TXOTXONGILO IKUSKIZUNA**
GOLOKA TALDEA:
"WOLING-en Garatxo". Azoka plazan

19:30etan **BERBODROMOA.** Azoka plazan

URRIAK 1 LARUNBATA

12:30etan **KALE ANTZERKI IKUSKIZUNA**
IMANOL ITUÑO MAGOA: "Salam".
Azoka plazan

13:00etan **BERBAPOTEOA BERTSOLARI**
ETA TRIKITILARIEKIN. Jai Batzordearen txosnatik

Zorrotzako
Euskal Txokoak
babestutako ekitaldiak



ZORROTZA
BIZIRIK



jaiak 2016

ZORROTZA

(BILBO)



Zorrotzara heltzeko:

Bilbobus: 18 / 85 / 88.

Bizkaibus.

Renfe.

Feve.



ZORROTZA
BIZIRIK



AUZOTARROK

Ostirala IRAILAK 23 22.00etan • Azoka plazan

TALDE LOKALA + HUTS + OBÚS

Larunbata IRAILAK 24 23.00etan • Azoka plazan

KRESALA

Igandea IRAILAK 25 20.00etan • Azoka plazan

HAVANA 537 talde kubatarra

Ostirala IRAILAK 30 23.00etan • Azoka plazan HIP HOP GAUA:

FRC FACTORY + KOKY MALA FAMA + INVERT +
FREESTYLE INVERT SKONE BTA
oridoren, MUSIC SESSION.

Larunbata URRIAK 1 22.00etan • Azoka plazan

LOS DEMENCIALES CHICOS ACELERADOS

TRIBUTO A ESKORBUTO

HIJOS DE TU IGLESIA

TRIBUTO A LA POLLA RECORDS

JOSETXU PIPERRAK

& THE RIBER A ROCK BAND

Gainera: SAKATU elektrotzaranga, OS DO PILÓN, dj XAIBOR...

www.
Zorrotza.org



Anseldo

Beste auzoetako gazteak erakartzeko taldeak ekarriko nituzke, Zorrotzako jaiak iraganean ziren bezain ospetsuak berriro izan daitezela



Aitor

Normalean ekartzen dutena oso ondo dagoela iruditzen zait: berberena bat eta rock taldeak

Zorrotzako jaien kontzertuak.

Zein talde edo abeslari ekarriko zenuke jaietara?

Iratze Pérez



Loredi

Iraganean famatuak izaten ziren taldeak, lehen parrandan ateratzen ginen jendea berriro ere ateratzen animatzeko. A! Eta baita umeentzako zein helduentzako berbenak ere



Inés

Berbenak gustuko ditut baina musika komertziala jotzen duen talderen bat ere ekarriko nuke, "Los 40" katean entzuten diren horietakoak



Jose

Nik berbena asko ekarriko nituzke, jaietarako gustukoen daukadana baita



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98



AUTO ESKOLA KAIKU

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hanburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Euskara
ikasteko
diru-laguntza



Bilbon
euskaraz



Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

DENA BERDIN

**Betiko segurtasuna
eta hurbiltasuna**

DENA BERRI

**Inoiz baino errazago
eta azkarrago**

LABORAL KUTXA ZUREKIN ZURE MUGIKORREAN

Eguneratu zure **App-a**




LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

ERABILI EUSKARA BILBON



WWW.DARABILBO.EUS////////AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOHAINIK



WWW.DARABILBO.EUS